

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa


**Behera doa okupazioa Industrian
eta gora eraikuntzan
eta zerbitzuetan**

**Hazkunde ekonomikoa
geldotzen ari da**

**Sortzen den enplegu berriak
ez du bermatzen pobrezia
egoera gainditzea**



**Europatik urruti gaude
gizarte babesari dagokionez**

Hego Euskal Herriko lan eta ekonomi egoeraren adierazle batzuk




Okupazioak gora egiten du Euskal Herrian baina krisiaren hasieran baino 68.000 pertsona gutxiago dabil lanean.

2009tik aurrera Hego Euskal Herriko egoerak okerrera egin du erabat aspektu honetan. 2009 urtean prestazio hau langabeen %69,5ek jasotzen zuen, langabeziagatiko prestazioak 2015etik aurrera langabeen %40 inguruk bakarrik jaso du.



Tenporalitateari dagokionez, Europako maila altuenetarikoa dugu HEHn (%25,1), Estatu espainiarraren (%27,5) eta Montenegroren (%30,1) atzetik. Kontrako aldean, tenporalitate baxuena duten lurraldeak Errumania (%1,1) eta Lituania (%2,3) eta Baltikoko estatuak dira (Estonia eta Letonia).

Batez besteko gizarte babes maila European BPGren %28,1ekoa izan zen 2016an, EAEn baino 3,7 puntu gehiago eta Nafarroan baino 7,1 puntu gainerik.





Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Zifren hobekuntza geldotzen hasi da	4
2. Langabezia: Nafarroan gora, EAEn behera . . .	4
3. Behera doa okupazioa Industrian eta gora eraikuntzan eta zerbitzuetan	5
4. Prekarietatea	6
5. Gazteen egoera prekarioa	7
6. Emakumeak diskriminazio egoeran	7
7. Europaren atzean jarraitzen dugu	8
8. BPG-ren hazkundea geldotzen hasi da	9
9. KPI	9

HILAREN PUNTAKO GAIA:

HEHko gizarte babesaren ehunekoa EBren oso azpitik	11
---	-----------

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
BPG	Barne Produktu Gordina
BAI/EPA	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
EIN/INE	Estatistika Institutu Nazionala
SEPE	Servicio Público de Empleo Estatal

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

Diskurtso ekonomiko ofiziala saiatzen ari da konbentzitzen krisia bukatu dela eta hazkunde garaia geratzeko heldu dela. Datuek, ordea, ez dute hori erakusten. Hazkunde ekonomikoa jada ez da aurreko hiruhilekoen erritmoan hazten; gainera, azken hilabeteetan adierazleen hobekuntza geldotzen hasia da.

Krisi ekonomikoa prekarietatearen hedapenarekin batera etorri zen; enplegua izateak pobreziatik ateratzearen sinonimo izateari utzi zion, eta gehien irabazten zutenen eta gutxien jasotzen zutenen desberdintasunak areagotu egin ziren, zorpetzearen hazkunde handia ere eman zen. Kapitalak krisia aprobetxatu du langile klasearen erasoan sakontzeko eta eraso hori bortitzagoa egiteko, lan baldintzen eta eskubideen galeraren lepotik are gehiago aberastuz.

Honela, 2019ko egoera duela hamarraldi batekoa baino okerragoa da; badira zenbait ekonomilari krisi berria datorrela iragartzen dutenak. Hortaz, erabat kezagarria da langile klasearen errealitate politiko soziala. Batez ere txosten honetan aipatuko ditugun kolektibo ahulenentzako, zeintzuek prekarietate sakonena pairatzen duten.

** Txosten hau 2019ko otsailaren 16an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua
www.mrafundazioa.eus
Twitter: @mrafundazioa

Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

1. Zifren hobekuntza geldotzen hasi da


a) Biztanleria aktiboa

2018ko laugarren hiruhilekoan 1.345.800 pertsonak osatu dute HEHko lan merkatua deritzona, biztanleria aktibo bezala ezagutzen dena: 316.500 Nafarroakoak eta 1.029.300 EAEkoak direlarik. Honek enplegua duten pertsonak eta eduki gabe, aktiboki bila dabiltzanak barneratzen ditu. Aurtengo biztanleria aktibo kopurua pasa den urtekoa baino 11.500 handiagoa izan da, baina honek ere badauka bere alde negatiboa, aurreko hiruhilekoekin alderatuz gero, ikusi dezakegu murriztu egin dela biztanleria aktiboaren hazkundera.

b) Enplegua

2018ko laugarren hiruhilekoan 1.215.400 pertsonak enplegua izan dute Hego Euskal Herrian EParen arabera. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, 2013 urtea izan zen okupatu kopuruak behera jo zuen urtea bai Nafarroan zein EAEn. Urte hartatik aurrera okupatu zifrek gora egin dute bi erkidegoetan. Hala ere, 2008tik urrun jarraitzen dute zifra hauek, krisia hasi zen urtean gaur eguneko baino 68.300 pertsona okupatu gehiago zeuden.

Okupatu kopurua Hego Euskal Herrian 2008-2018 (milaka)



Iturria: INE

2018an enplegua izan dutenen artean, 284.800 Nafarroakoak dira eta 930.600 EAEkoak. Lehen erkidegoan 4.600 okupatu gehiago daude pasa den urteko datuekin alderatuta. EAEn, 14.700ean egin du gora zifra honek. Sexuari erreparatu

gero, desberdintasunak existitzen jarraitzen du, %47,7 dira emakumeak eta %52,3 gizonak.

c) Soldatapeko langileak


Enplegua dutenen artean, 1.045.300 soldatapeko langileak dira, aurreko urtean baino 17.200 gehiago. Biztanleria okupatuaren %86 soldatapeko langileria da (gizonen %83,2 eta emakumeen %89,1). Kasu honetan Nafarroako eta EAEko zifrak oso antzekoak dira, batak %86,2, besteak %86.

2. Langabezia: Nafarroan gora, EAEn behera

Langabezi tasa aztertzeke orduan, bi datu desberdin ditugu, batetik INEk EParen bidez emandako estimazioa eta bestetik SEPEK erregistratutako datua daukagu.

INEk emandako datuei erreparatu badiegu, bere estimazioak %9,68an zenbatzen du HEHan dagoen langabezia tasa 2018ko laugarren hiruhilekoan (EAEn %9,59 eta Nafarroan %9,98). Zifretan, 130.300 lagun dira langabezian egon direnak, aurreko urteko epealdi berean baino 7.900 gutxiago. Hego Euskal Herria osotasunean hartuz gero, langabezia datuak norabide desberdina dute EAE eta Nafarroan azkenengo urtean. EAEn ehuneko bat murriztu da, hau da, 9.600 langabe gutxiago (98.700) egon dira. Nafarroan, ordea, %0,34 igo da langabezia tasa, horrek 1.700 langabe gehiago (31.600) suposatzen du.

Langabezi tasaren bilakaera Nafarroan eta EAEn 2008-2018




Iturria: INE



Erregistratutako langabeziaren zifrek adierazten dute 152.516 pertsona egon direla langabezian 2018ko abenduan. Beraz, aurreko urtearekin alderatuz 10.763 langabe gutxiago daude. Aipatzekoa da, EPAk eta SEPEk ematen dituzten datuen arteko diferentzia handia dela, hain zuzen 22.216 langabe gehiago kontabilizatzen ditu SEPEk. Teorian aurkakoa gertatu beharko litzateke, inkestetan agertzen den zifra erregistroan agertutakoa baino handiagoa izan beharko litzateke.

Langabezian egon direnen %53,8ak (70.100 pertsonak) urtebete baino gehiago eman du egoera horretan EPAren arabera, 2017ko lau garren hiruhilekoan baino %1,2 gehiago. 2008an, aldiz, epe luzeko langabezia soil-soilik %20koa zen eta haziz joan zen 2014an %61,9ra iritsi arte. Hala ere, 2014tik ez da eman langabezi mota honen murrizketa esanguratsurik. Ondorengo grafikoan 2018ko epe luzeko langabezia bai ehunekoan bai kopuruan askoz altuagoa dela ikusi dezakegu.

**Epe luzeko langabezia (%)
2008 eta 2018 HEH**



Iturria: INE

3. Behera doa okupazioa Industriari eta gora eraikuntzan eta zerbitzuetan

Atal honetan lan sektoreei erreparatuko zaio. Hiruhileko honetan, azken urteetako joeraren nolabaiteko aldaketa gertatu da: azken urteetan bezala zerbitzuen sektorean eman da okupatu kopuruaren igoera handiena diferentzia handiz, hala ere aipatu beharra dago eraikuntza sektorean ere izan dela hazkunde handia. Gainontzeko

sektoreetan murriztu egin da okupatu kopurua azken urteetako joera mantenduz.

Datuei erreparatuz, lehenengo sektorean 18.500 biztanleria okupatu (%1,5) aritu da, eraikuntzan 72.700 (%6), industrian 272.000 (%22,4) eta zerbitzuetan 852.200 (%70,1).

Okupatu kopurua sektoreka HEHn 2018ko lau garren hiruhilekoan

	2017ko 4. hh.		2018ko 4. hh.	
	Pertsona	%	Pertsona	%
Nekazaritza	19.000	1,6	18.500	1,5
Eraikuntza	63.900	5,3	72.700	6
Industria	285.700	23,9	272.000	22,4
Zerbitzuak	827.400	69,2	852.200	70,1
Guztira	1.196.100	100	1.215.400	100

Iturria: INE

Nekazaritzan pasa den urtetik beherakada eman da, 2008tik aurrera egon den joera berdina izaten jarraitzen du, hau da, bai okupatu zenbatekoan eta sektoreen ehunekoan murriztu da kopurua. 28.700 pertsonatik 18.500era murriztu da kopuru hau urte hauetan.

Industria da gehien kezkatzen duen sektorea, sektore honetan eman delako okupatu murrizketa handiena pasa den urtetik, 285.700tik 272.000ra, hori %1,5eko jeitsieraren sinonimo da. Gainera, 2008tik 42.200 okupatu gutxiago daude sektore honetan.

Aitzitik, eraikuntzan 2008tik egon den igoera handiena gertatu da azken urtean, 8.800 pertsona gehiago egon dira sektore honetan 2018an, 72.700 pertsonara heltzeraino iritsi arte. Hala ere, 2008 urtean eraikuntza sektoreak gaur egun baino indar handiagoa zuen, lan merkatuko okupatu %6 egon da 2018an, hamar urte lehenago, aldiz, %7,3 ziren.

Zerbitzuetan igo da nabarmen okupatutako kopuru handiena diferentzia handiz pasa den urtetik, 827.400etik 852.200era, hain zuzen. 2013tik (non okupatu gutxien urtea izan zen) sortu diren okupatu %80 zerbitzuen sektorekoak izan dira, 67.300 pertsona. Behin eta berriz errepikatu dugun moduan, prekarietateak erlazio zuzena du horrekin.

4. Prekarietatea

Prekarietate izena ematen dion atal honek bi azpiatal ditu, batetik, kontratuen tenporalitatea eta partzialitatea analizatuko duena, zeinak 2018ko laugarren hiruhilekoaren kontratuen kalitatea neurtzen duen; bestetik, aldiz, prestazioen nondik norakoak analizatuko dira.

a) Kontratuak, lanpostuen kalitate eskasa

Existitzen diren kontratu guztien datuak (EPA)

Batetik, EPAk estimatzen dituen datuak dauzkagu, non biztanleria okupatuak duen kontratuen partzialitatearen datuak ematen ditu eta soldatapekoek duten kontratuen behin behinekotasuna aztertzen du.

Kontratu tenporalak edo behin behinekoak %26 izan dira 2018ko abenduan, pasa den urtean datua %25,4koa izan zen. Jakina da eta datu honek baieztatzen digu kontratu totalen ehunekoa handitzen ari dela azken aldian hurrengo atalean zehatzago ikusiko dugun bezala.

Partzialitateari dagokionez, okupatuak %16,32k dute mota honetako lanaldia.

Kontratu prekarioen ehunekoa igo egin da 4. hiruhilekoan (SEPE)

2018ko laugarren hiruhilekoan HEHn egin diren 359.482 kontratutik 138.573 lanaldi partzialekoak izan dira (%38,5) eta 330.669 tenporalak edo aldi baterakoak (%92); gogora dezagun kontratu partzialak aldi-baterakoak direla hein handi batean.

Kontratazioa HEHn 2018ko laugarren hiruhilekoan

	Kontratuak	Tenporalitatea	Partzialak
Orokorra	359.482	%92	%38,5
Nafarroa	95.307	%93,2	%30,7
EAE	264.175	%91,5	%41,4

Iturria: SEPE

Tenporalitatearen kasuan, bai EAEn zein Nafarroan antzerako datuak antzeman daitezke. Bi puntuko desberdintasunera ez da heltzen bata eta bestearen arteko aldea, kasu honetan Nafarroako

datuak txarragoak dira, %93,2 izan dira laugarren hiruhileko kontratu tenporalak, EAEn aldiz %91,5.

Partzialitateari dagokionez, EAE eta Nafarroaren arteko aldea dexente igotzen da. Nafarroak %30,7ko partzialitatea dauka, EAEn zenbateko hori %41,4ra igotzen da.


Datuak bakarrik ikusi besterik ez dago kontratuzeko zer nolako kalitatea prekarioa duten 2018ko laugarren hiruhileko kontratuek, hamarretik 9 baino gehiago dira behin behinekoak eta hamarretik ia lau partzialak.

b) Bost langabetik hiruk ez du langabeziagatiko prestaziorik jasotzen

Atal honetan ikusiko den bezala, langabe bakoitzari bideratu den langabeko prestazioa azken urteetako kopururaren antzekoa izan da. Hau da, oso urruti jarraitzen dugu krisi hasierako urteen zifretatik eta horretaz gain, prestazio gabe geratu diren langabeen portzentajea ez da murriztu langabe gutxiago egon den arren.

Ondorengo grafikoak 2018ko datuak adierazten ditu. 2018ko abenduan HEHko langabeen bostetik hiru pertsona prestazio gabe geratu dira; %40,5ak jaso ditu langabeziagatiko prestazioak, hau da, 152.516 langabetik 61.745ek. Horietatik 38.263k (%25,1) kontribuzio mailako prestazioak jaso dituzte eta 23.482k (%15,4) kontribuziozkoak ez direnak. Datua okerragoa izan da EAEn, %38,1ak bakarrik jaso izan du prestazioa, Nafarroan, aldiz, %46,8k jaso du.

Langabeen egoera HEHn 2018ko abenduan




Iturria: SEPE

2009tik aurrera Hego Euskal Herriko egoerak okerrera egin du erabat aspektu honetan. 2009 urtean prestazio hau langabeen %69,5ek jasotzen zuen, langabeziagatiko prestazioak 2015etik aurrera langabeen %40 inguruk bakarrik jaso du.




Langabeen egoeraren bilakaera HEHan 2008-2018



Iturria: SEPE

2018ko abenduan 66.662.000 euro bideratu dira aipaturako prestazio horietara. Azken urteetan izugarriko murrizketa eman da prestazio hauetara bideratzen den diru kantitatean, grafikoa ikusi beharra besterik ez dago horretaz konturatzeko. Egia da gehien bideratu zen urteetan behar izanaz askoz handiagoak zirela gaur egunean baino langabe gehiago zeudelako. Hala ere, langabeko zenbat euro bideratzen den kalkulatu, 2018ko zifra urte horietakoa baino askoz baxuagoa da. 2018an langabeko 437 euro gastatu dira, 2009an aldiz 833 euro gastatu ziren, ia bikoitza.

Langabeko batez besteko gastua eta gastatutako dirua guztira 2008-2018 (mila eurotan)



Iturria: SEPE

5. Gazteen egoera prekarioa

Biztanleria gazteaz hitz egiten dugunean 16 eta 24 urte bitarteko pertsonak hartzen ditugu kontutan.

Gazte aktibo kopurua murriztu egin da azken urtean. 75.200 pertsona aktibo egon dira 2018ko laugarren hiruhilekoan, urtebete lehenago baino 1.200 gutxiago. 2008ko datuarekin alderatuz, aldea nabarmena da, 106.300 aktibo egon ziren urte hartan. Pertsona ez aktiboari dagokionez,

hauek aktiboak ez bezala, gora egin dute azken urtean, 9.300 ez aktibo gehiago daude.

Gazteen artean okupazioak ez du izan ia aldaketarik pasa den urteko zenbatekoarekin alderatuz, 57.800 pertsona izan dira, 700 gehiago. Horietatik 31.400 gizonak izan dira eta 26.400 emakumeak. Baita ere duela urtebete baino 500 soldatapeko gazte langile gehiago daude, gazteetatik %95,8 dira soldatapekoak.

Gazteen langabezia kezkatzeko moduko arazo estrukturala da, 17.500 gazte daude oraindik langabezia egoeran, hau da, %23,3 da gazteen langabezia tasa. Nafarroan murriztu egin den arren, EAEn hazi egin da langabezia tasa hau, azkenengo urtean 400 gazte langabetu gehiago dago erkidego honetan.


Ondorioztatu dezakegu, gazteen errealitatea oso kezkagarria dela, batetik, atal honetan aztertu dugun moduan: aktibo gutxiago daude, ez aktibo gehiago eta okupatuak zenbatekoak beste adinetan ez bezala mantendu egin da. Gainera, EAEn kasuan langabe kopurua hazi egin da. Bestetik, aurreko atalean ikusi dugun bezala, egiten diren kontratu berriak guztiz prekarioak direla, batez ere gazteen kasuan.

6. Emakumeak diskriminazio egoeran

Emakumeen diskriminazio egoera datuekin adieraziko dugu atal honetan:

Langabezia tasa

Emakumeen langabezia tasa altuagoa izan da bai Nafarroan bai EAEn. Nafarroan alde hori handiagoa izan da, %1,9 puntuko diferentzia izan da emakume eta gizonen artean. EAEn diferentzia %0,75ekoa izan da.



Iturria: INE

Temporalitatea: INE eta SEPE

Tenporalitatean ere egon badaude desberdintasunak bai INEk bai SEPEk emandako datuetan.


- EPAk emandako zifren arabera emakumeek dituzten kontratuetatik %28,4 dira behinekoak; %23,6 gizonezkoenak.
- SEPEren arabera, laugarren hiruhileko datuek egoera hori ez dute hobetzen, aurkakoa baizik. Joera berdinarekin jarraitzen da, hau da, egin diren kontratuetatik emakumeenak %94 tenporalak dira eta %89,9 gizonenak.

	Gizonak	Emakumeak
INE-EPA	%23,6	%28,4
SEPE	%89,9	%94

Partzialitatea INE eta SEPE

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, kontratazioan ematen den aldi-baterakotasuna parekoagoa bada ere, partzialitatean dagoen diferentzia izugarria da:

- EPAren zifrek adierazten dute kontratuen %6,83 direla partzialak gizonengan, zifra hori emakumeengan ia lau aldiz handiagoa da, %26,72koa.
- Gizonei egin zaizkien kontratu berrien %26,9 dira partzialak, emakumeei egiten zaizkienak, berriz, %50, ia bikoitza. Genero diskriminazioa argi ikusi daiteke datu hauetan.



Iturria: INE, SEPE

Sektore prekarioenak

Emakumeak jasaten duten partzialitate honen arazoietako bat, emakumeen gehiengoa sektore prekarioenetan kontzentratzen direlako gertatzen


da. Emakumeak zerbitzuetan izan ezik, beste hiru sektoreetan gutxiengo dira alde handiarekin: nekazaritzan %17,3, eraikuntzan %12 eta industrian %25. Zerbitzuetan, ordea, emakumeak biztanleria okupatuaren %58,7 dira. Gazteen kasuan ere gauza bera gertatzen da.

7. Europaren atzean jarraitzen dugu

Europarekin alderaketa egiteko datuak hirugarren hiruhilekoak dira, eurostatek argitaratu dituen azkenak.

Hego Euskal Herriko egoera Europako herrialdeekin alderatzean, hurrengo grafikoetan ikusi daitekeen bezala, azken postuetan agertzen da. Horrela, tenporalitateari dagokionez, Europako maila altuenetarikoa dugu HEHn (%25,1), Estatu espainiarraren (%27,5) eta Montenegroren (%30,1) atzetik. Kontrako aldean, tenporalitate baxuena duten lurraldeak Errumania (%1,1) eta Lituania (%2,3) eta Baltikoko estatuak dira (Estonia eta Letonia). Europar Batasuneko batez bestekoa %14,4 da, Hego Euskal Herrikoa baino %10,7 gutxiago.

Europako tenporalitate tasa 2018ko 3. hh.




Iturria: Eurostat, INE

Antzera gertatzen da langabeziari dagokionez: Hego Euskal Herriko langabezia maila Europakoarekin konparatzean, Europar Batasuneko batez besteko langabezia tasa %6,6koa izan zen 2018ko irailean; horren parean, 2018ko laugarren hiruhilekoan, HEHan langabezia tasa %9,68koa izan da (Nafarroako %9,9 eta EAeko %9,6az



osotua, gogoratu dezagun). Behin eta berriz errepikatzen digute Estatu Espainiarrean EAE eta Nafarroa egoera onenean daudela, baina Europarekin alderatuz HEHan dagoen langabezi tasa EB-28an baino hiru puntu handiagoa da. Gainera, 2008an baino tarte askoz handiagoa daukagu gaurkoan, 2008an, %1,1ekoa zen, 2018an tarte hori bi puntutan handitu da. Aipatu beharra dago, langabezia tasari dagokionez, Nafarroa eta EAEk Europako langabezi altuenetarikoa dutela.


EB-28 eta HEHko langabezi tasa 2008 eta 2018



Iturria: Eurostat, INE

Gazteen langabeziari dagokionez, langabezia tasa orokorraren oso antzekoa zen egoera. Horrela, Europar Batasuneko gazteen langabezia tasa %15,2koa izan zen, Islandiakoa %4,9 (datu baxuena) eta Alemaniakoa %6,6; beste muturrean Grezian %36,3 (datu altuena) eta Estatu espainiarrean %33 gazte langabezia tasak zeuden. HEHko gazte langabezia 2018ko hirugarren hiruilekoan %25,2 izan zen. Hego Euskal Herriko gazte langabezia tasa Europar Batasuneko baina %10 handiagoa izan zen eta Islandiakoa baino bost aldiz handiagoa.

Europako gazte langabezi tasa 2018ko 3. hh.



Iturria: Eurostat, INE

8. BPG-ren hazkundera geldotzen hasi da

Barne Produktu Gordinaren hazkundera geldotzen hasi da jada Hego Euskal Herrian. Aurreko urteko epealdi berarekin alderatuz, 2018ko laugarren hiruilekoan %2,4 hazi da EAEn eta %3 Nafarroan. EAE %0,6 gutxiago hazi da 2017ko epe berarekin alderatuz. Nafarroan ere eman da beherakada. Aipatu beharra dago, Nafarroako hazkundera EAEkoa baino altuagoa izaten jarraitzen duela, gainera azken bi hiruilekoetan tarte handitu egin da, puntu erdia igaroz.

BPGaren urte arteko hazkundera

Hiruhil.	2017		2018			
	III	IV	I	II	III	IV
EAE	3	3	3,1	2,9	2,6	2,4 (p)
Nafarroa	3,2	3,2	3,3	3,4	3,3	3


Iturria: Eustat, IEN

9. KPI

Estatu espainiarrean ondasunen eta zerbitzuen prezioek igotzen jarraitzen dute, azken hilabeteen %1 egin du gora Kontsumo Prezio Indizeak, aurreko hilabeteen baino %0,2 gutxiago. Hala ere, azken hiru hilabeteetan inflazio tasaren gorakada murriztu egin da, maiatza eta urria bitartean %2tik

gorako indizea egon baitzen. Murrizketa hau gasaren, gasoilaren eta gasolinarengatik eman da, hauen prezioa merketu egin delako; pasa den urtean gorakada eman zen bitartean.

KPIren urtearteko bilakaera (%) Estatu espainiarrean



Iturria: INE

Hilaren puntako gaia:

HEHko gizarte babesaren ehunekoak EBren oso azpitik




Gizartea babesteko sistema arau jakin batzuen multzoa da gizarte babesa, erakunde batek edo batzuek lagunduta gizarte-prestazioak eta finantzaketa ematen dutenak. Aberastasunaren banaketa zuzen baterako erabat beharrezkoa da politika publikoen erabilera egokia izatea. Tresna garrantzitsua da beraz gizarte babesa sistema honek eragiten dituen desberdintasunak murrizteko. Horregatik bideratzen diren baliabide ekonomikoak aztertzea nahitaezkoa iruditzen zaigu.

EAE

Eustatek, Euskal Estatistika Institutuak, 2019ko otsailean argitaratu ditu Gizarte Babesaren gastuaren datuak; dokumentu honetan EAEko 2017. urteko zifrak jasotzen dira. 2017an gizarte babesera zuzendutako baliabide ekonomikoak 17.870 milioi izan ziren, hau da, BPGren %24,2:

Grafikoan ikusi daiteke, gizarte-babesera bideratutako aberastasunaren zatiak beheranzko joera izan duela azken bost urteetan EAEn. Bideratu den BPGren zatia gutxitu egin da 2016etik %0,2 eta are gehiago 2013tik, %25,8tik %24,2ra igaro da, hain zuzen. Honen bidez argi ikusten da, instituzioek gero eta garrantzi gutxiago ematen diotela gizarte babesari, beraz, behar izan handienak dituzten pertsonen.

EAE bideratutako aberastasunaren zatia 2013-2017



Iturria: Eustat


Nafarroa

Nastatek (Nafarroako Estatistika Erakundeak) ematen dituen Gizarte Babesaren gastuaren azken zifrak 2015ekoak dira. 2015ean gizarte

babesera bideratutako baliabide ekonomikoak 3.955 milioi euro izan ziren, hau da, BPGren %21 besterik ez.

2013 eta 2015 artean bideratutako zenbatekoak beherakada izan zuen. 2013 urtean gizarte babesera bideratzen zen pisua BPGarekiko %21,5ekoa zen, 2014an %20,9ra murriztu zelarik. 2015ekoa %0,1 bat bakarrik aldatu da aurreko urtekoarekin alderatuz.

Nafarroan bideratutako aberastasunaren zatia 2013-2015



Iturria: Nastat

Europa

Atal honetan, Eustatek eta Nastatek argitaratutako datuak Europar Batasuneko herrialdeekin alderatuko ditugu, horretarako Eurostatetik ematen dituen zifrak erabiliko ditugu. Honela perspektiba zabalago bat dugu bideratzen den diru kopurua baxua ala altua den jakiteko.


Asko dira ahotsak diotenak, Europako herrialde garatuenekin kompetentzian gaudela, herrialde horien mailan gaudela esaten dutenak ere egon badaude. Hala ere, hain garrantzitsua den babes sozialera bideratzen den ehunekoari erreparatzen badiogu, ikusi dezakegu, herrialde horiek urrun geratzen zaizkigula, hortaz, saltzen diguten diskurtsoa eta errealitatea erabat desberdinak direla hauteman dezakegu. EAEn gizarte-babeserako erabili den aberastasunaren zatia Europa mailan azken postuetan dago, Nafarroako datuak are okerragoak dira:

- Batez besteko gizarte babes maila Europan BPGren %28,1ekoa izan zen 2016an, EAEn baino 3,7 puntu gehiago eta Nafarroan baino 7,1 puntu gainerik. Gainera, aipatu beharra

dago, EAEn ez bezala, Europan azken urteetan ehuneko hori mantendu egin dela. 2011 urtean BPGren %28,3 bideratzen zen gizarte babesera.

- Badaude, grafikoan ikusi daitekeen moduan, hainbat herrialde Europa mailan diferentzia handia dutenak bai EAE zein Nafarroarekiko. Adibidez, Estatu Frantsesean %34,3 bideratzen da, edo Finlandian %31,8. EAekin alderatuz desberdintasunak handiak dira eta Nafarroarekiko are handiagoak.

Gizarte-babes maila. EAE eta Nafarroa, Europar Batasuna. 2016 (BPG)




Iturria: Eurostat, Eustat

EAEk zein Nafarroak Europako herrialde askotan inbertitzen denaren mailara heltzeko, ahalegin handiak egin beharko lituzkete:

- EB-28ko batez besteko mailara iristeko 2016 urtean EAEn bideratutako gizarte babeserako baliabideak %16 edo 2.758 milioi handitu beharko liriateke.
- Nafarroan, aldiz kopuru hori 2015eko datuekin alderatzean, %33,7 gehiago bideratu beharko liriateke edo beste modu batera esanda 1.334 milioi euro Europar Batasuneko batez bestekora heltzeko.
- Beste herrialdeekin alderaketa egiten bada bai ehunekoak bai diru kantitatea hazi egiten da: Nafarroaren kasuan, orain bideratzen dutena baino %63,2 edo 2.501 milioi gehiago bideratu beharko zuten Estatu Frantsesaren mailara heltzeko eta EAEn %41,6 edo 7.175 milioi. Ondorengo grafikoan ikusi daiteke,

herrialde horien mailara heltzeko gastua maila handi batean hazi beharko zela.

Europako herrialdeen mailan egoteko inbertitu beharko litzatekeena EAEn eta Nafarroan gizarte babesean (milioi euro urtean)



Iturria: Eurostat, Eustat

Informe honetan eskeinitako datuak eta hemen saltzen diguten diskurtsoa ez datoz bat. Hego Euskal Herriko gizarte babesera eskeinitako BPGren ehunekoak Europako herrialdeena baino askoz baxuagoa da. Horretaz gain, bideratzen den aberastasunaren zatiaren bilakaera aztertzean, ikusi dugu gero eta txikiagoa dela kopuru hau.